

## **4. ZERGA ORDENANTZA, KULTUR ETA KIROL JARDUERETARAKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUENA**

### **1. artikulua.- Xedea.**

Ordenantza honen xedea da diru-laguntzak eskatzeko eta udalerriko herritarrei zuzenean emateko prozedura eta irizpide orokorrak zehazteko araudia finkatzea; hala, ekipamendu publiko eta pribatuetan aisia- eta prestakuntza-jarduera indibidualak sustatu nahi dira, udalak erabat ematen ez dituen eta udal eskumenekoak diren zenbait zerbitzu osatu edo ordeztuko. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak arautzen du diru-laguntzen erregimen juridikoa.

### **2. artikulua.- Diruz lagun daitezkeen jarduerak**

Udalerriko herritarrek Elantxobeko udalerrian kokatutako ekipamenduetan edo aldameneko Gernika-Lumon kirola, musika eta kultura arloetan egiten dituzten jarduerak diruz lagundu ahalko dira, bonoak edo matrikulak eginez, familiakoak zein indibidualak, esaterako kiroldegiak eta kontserbatorioak erabiltzea, arteekin lotutako ikastaroetan etab., betiere titulartasun publikokoak badira.

### **3. artikulua. Aurrekontu aurreikuspena.**

Udalak urtero aurrekontu-partida bat gordeko du diru-laguntzak emateko, eta horiek ematea ebazpen unean nahikoa kreditu egotearen mende egongo da.

### **4. artikulua.- Irizpide orokorrak**

Udal aurrekontu-baliabideek ahalbidetzen duten neurrian, udalak aipatutako jarduerak gauzatzeko diru-laguntzak eman ahal izango ditu, arau hauei jarraiki:

- 1.- Diru-laguntzek borondatezko eta behin-behineko izaera izango dute, eta emateak ez du etorkizuneko emakidetarako aurrekaririk finkatzen ez eta udala behartzen ere.
- 2.- Udaltzak edozein unetan ezeztatu edo murriztu ditzake, aurkakoa dioen klausula egon ezean.
- 3.- Udal laguntzen ehuneko arrunta dagokion matrikula ordaintzeko kostuaren % 25 izango da, eta inoiz ez dira aplikatuko diren jardueren % 50 baino gehiago izango.
- 4.- Ezin izango da diru-laguntzaren gehikuntzarik edo berriuspenik eskatu.
- 5.- Udalak eskubidea izango du interes berezia izateagatik hala eskatzen duten jarduerak diruz laguntzeko, egokitzat jotzen dituen neurrian eta moduan.

### **5. artikulua.- Eskatzaileak**

Elantxobeko udalerrian gutxienez bi urteko antzinasunarekin erroldatutako pertsona guztiek diru-laguntza eskatu ahalko dute, baldin eta garatuko diren jardueren matrikulen edo ordainketen titularrak badira.

### **6. artikulua.-Eskabideak.**

Diru-laguntzen eskaerak Udal Erregistroan aurkeztu beharko dira eskabide indibidualizatuan; eskatzaileak dokumentua sinatu beharko du eta bertan diru laguntza zein programa edo jarduera paralelorako eskatzen duen jaso beharko da; horrekin batera, agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu:

1. Eskatzailearen NANaren fotokopia.
  2. Fakturaren kopia edo ordainketaren ziurtagiria
  3. Familia bonoaren kasuan, Familia Liburuaren fotokopia.
  4. Bizikidetzat ziurtagiria, horrela badagokio
  5. Xede berarekin jasotzen dituzten beste laguntzen adierazpena; horrez gain, udal zerga-betebeharrak egunean izatea, eta udalak aurretiaz emandako diru-laguntzak justifikatu izanaren adierazpena.
- Aurkeztutako dokumentazioa ez bada nahikotzat jotzen, udalak eskubidea izango du beste ziurtagiri batzuk eskatzeko; ziurtagiri horiek interesatu bakoitzaren xehetasunen arabera zehaztuko dira.

### **7. artikulua.- Irizpide espezifikoak**

Diru-laguntzak emateko hauek oinarritzotzat joko dira:

- a) Jardueraren interes orokorra
- b) Antzeko jarduerarik ez egotea.
- c) Diru-laguntzarik gabe eskatzaileak nekez egingo lituzkeen jarduerak egiten laguntzea.

### **8. artikulua.- Diru-laguntzaren justifikazioa**

Egindako gastuen fotokopiak eta, hala badagokio, bertaratze ziurtagiria garatu beharreko jarduera bukatu eta hilabeteko epean edo urte bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen aurkeztuko dira, kiroldegietako ordainketen laguntzen kasuan salbu.

### **9. artikulua.- Onuradunen betebeharrak**

1. Diruz lagunduko diren jarduerak laguntza eman den urtearen barruan egin beharko dira eta 8. artikuluan aipatutako dokumentazio bidez justifikatu beharko dira.
2. Emandako diru-laguntzen xedea ezin da aldatu.
3. Jarduera baterako diru-laguntza eskaera aurkezte hutsak esan nahi du eskatzaileak badakizkiela eta onartzen dituela ordenantza honetan ezarritakoa eta ematea arautzen duten oinarriak.
4. Ezingo zaie diru-laguntzarik eman funtsak justifikatzeke dituztenei; funts horiek erreklamatu ahalko dira, eta zerga-zor izaera izango dute.
5. Ordenantza honetan jasotako betebeharrak eta zehaztasunak ez betetzeak diru-laguntza baliogabetzea eragin dezake.

### **10. artikulua.- Onestea**

Urtean zehar aurkeztutako eskabideak Alkatetzak edo dagokion arloko zinegotzi arduradunak ebatziko ditu; onesten den unetik 15 eguneko epean jakinaraziko zaio eskatzaileari.

Ebazpenek amaiera emango diote bide administratiboari, eta berraztertze errekurtsua aurkez daiteke eman duenaren aurrean, edo Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan zuzenean aurkaratu ahalko dira.

## **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau indarrean sartuko da behin betiko onetsi ondoren, testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hamabost egunera, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz; indarrean jarraituko du harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

### **F) EPIGRAFEA: ZERBITZU SOZIOKULTURALAK**

Gehienez 50 orduko ikastaroak: Ikastaroaren kostuaren % 25.

50 ordu baino gehiagoko ikastaroak: ikastaroaren kostuaren % 25.

Kultura ekitaldietarako eta jaialdietarako autobusak: Erabiltzaile bakoitzak garraioaren kostuaren % 50 ordainduko du, libre dauden plaza kopuruaren arabera eta plaza bakoitzeko.

Gimnastika, aerobic, dantza, esku-lanak eta antzeko jardueretarako instalazioak erabiltzeagatik. Urte bakoitzeko: ikastaroaren kostuaren % 25.

Tarifak aplikatzeko arauak

Zerga egitatea ikastaroko parte-hartzaileek zehaztuko dute, edo udalak, kultur zerbitzuen edo KULTUR GUNEren bidez, antolatutako aurreko tarifa bakoitzaren zerbitzuak erabiltzeak; subjektu pasiboak izango dira horietara bertaratuko diren pertsona naturalak edo juridikoak eta zerbitzua ematea eragin dutenak.

Diru kontraprestazioa ordaintzeko betebeharrak zerbitzua ematen hasten denean sortuko da; hala ere, zenbateko osoa edo partziala aurretiaz ordaintzea eskatu ahalko da, ikastaroen kasuan dagokion matrikula gauzatzen denean eta autobusen kasuan, garraioa kontratatzen denean.

Tasa independentea da, ez du barne hartzen zerbitzua emateko beharrezko edo bertan kontsumituko diren materialak erosteko zenbatekoa; azken zenbateko hori erabiltzaileek ordaindu beharko dute. Hala ere, udalak jarduera horiek bultzatzeko laguntzak ematea eta neurriak hartzea erabaki ahalko du, egokitzat jotzen baditu.